

PARTE-HARTZEA ETA ERAGIN AHALMEN SOZIO-ESPAZIALA LURRALDE-PLANIFIKAZIOAN: ESKALEN ARTEKO KONPARAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Tesiaren egilea: Joseba Koldobika Arbaiza Alvarez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

Tesi-zuzendaria: Eugenio Ruiz Urrestarazu

Tesiaren laburpena:

Administrazio-eskala ezberdinetan onartu eta garatutako politika publikoek eragin zuzena izaten dute lurraldean, eta, ondorioz, bertoko biztanleriarengan. Beraz, lurralde-antolamenduak barnean hartzen dituen politika publikoak garatzeko prozeduretan, herritarren parte-hartzea funtsezkoa bihurtzen da.

Lurraldea ez da soilik ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta kontsumoa islatzen den azalera, sozialki eraikitako espazio bat ere bada. Lurraldea eraikitzean, gaitasun eraldatzaile ezberdina duten hainbat eragile saiatzen dira politiketan eta planetan beren banakako edo taldekako interesak islatzen, administrazio-tramitazioetan zehar negoziazio edo prozesu irekien bidez, eta, horretarako, ekintza-bide formalak edo ez-formalak erabiltzen dituzte.

Plangintza edo proiektuen tramitazioaren epealdian zehar, momentu puntualak bideratzen dira legez araututako prozedurak betetzera. Jendaurreko epealdiak zabaltzean, iradokizun edota alegazio bidezko parte-hartzea bideratzen da. Egituratutako eta legez araututako prozedura horietatik kanpo, badira administrazioen borondatez ezartzen diren prozedura irekiagoak eta, teoriarik, bestelako partaidetza ahalbidetzen dutenak.

Lurralde-antolamendurekin lotutako plangintzen izapideak itxiak eta tradizionalak izaten dira, berrikuntzetarako aukera gutxi zabaltzen dutenak. Era honetako parte-hartzeak asko mugatzen du eragile eta herritar askoren esku hartzeko nahia edo premia. Parte hartzeko, administrazioek eta legeek ezartzen dituzten mugek (denbora, baliabideak, egituratutako lehentasunezko agenteak, informazioa, mekanismoak...) esku-hartzea murrizten dute eta prozesuak izatetik urrun gelditzen dira.

Azterketaren helburu nagusia hau da: eragile eta eskala bakoitzak lurralde-plan baten garapenean eta tramitazioan izan dezakeen intzidentzia-gaitasuna aztertu eta ebaluatzea. Maila horretan, eragileen parte-hartzeko moduetan sakondu nahi da; prozesu horietan aritzeko gaitasun aldakorra, egitura-testuinguruarekin duen harremana, eta tramitazioaren eta plangintzen garapenaren hasieratik behin betiko onarpena ematen zaien arte izaten diren lurralde-arloko ondorioak.

Eskala izango da azterketa-kasu desberdinen arteko konparaketa egiteko aukera ematen duen aldagai geografikoa, eta ikerketa honetan planteatutako

analisia posible egingo du. Ikerketa-proiektu honen barnean, eskala ezberdinetako esparruetan izan diren lurraldeari lotutako parte-hartze prozedurak aztertu eta konparatu dira: tokikoa, eremu funtzionalekoa (eskualdearen baliokidea) eta autonomikoa (Euskal Autonomia Erkidegoa). Aukeratutako lehendabiziko kasu praktikoa Tolosaldeko lau landa-herritan garatu den Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua izan da. Bigarren kasu enpirikoa Arrasate-Bergarako Lurraldearen Zatik Planaren izapidea izan da, EAEko lurralde-antolamenduak ezartzen duen bitarteko eskalan egokitzen dena. Eskalen arteko konparaketa ahalbidetuko duen hirugarren kasua energia eolikoa garatzeko Lurraldearen Arloko Plana litzateke. Azken honekin lotuta, plangintza onartu aurretik ezarritako Elgeako zentral eolikoaren proiektua eta plangintza onartu ondoren martxan jarritako Badaiakoaren bideratze-prozedurak ere aztertu dira. Horrela, lan honek aukera eman du gaur arte Geografiatik ia landu gabe zeuden alorrak lantzeko, herritarren parte hartzeko mekanismo eta dinamiken inguruan.